



Gehituk, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak, Eusko Jaurlaritzak 2006an onura publikoko elkarte izendatu zuenak, 2004an Donostiako hiritar merituaren domina eta 2009an Gipuzkoa Giza Eskubideak saria leskuratu dituenak, ahobatez erabaki du

2012ko ZILARREZKO GEHITU SARIA:

EMPAR PINEDA ERDOZIARI ematea

Gizarteko eremu guztietan emakumeen eskubideen aldeko borrokan egindako ibilbideagatik eta sexu-dibertsitatearen defentsaren alde egindako lan eskergagatik.

Empar Pinedak (Hernani, 1944) hogeita hamar urte baino gehiago daramatza aktibista feminista gisa eta lesbiana gisa lan nekaezin bat egiten. Bartzelonan ezagutu zuen feminismoa, 1976. urtean. Orduz geroztik, lesbiana, gay, transexual eta bisexualen eskubideen aldeko borrokan betiere, Estatuko mugimendu feministaren historia hurbil-hurbiletik bizi izan du. 1977an, Harrotasunaren lehen manifestazioan, gay eta transexualekin batera eutsi zion buruko pankartari, baita haien ondoan poliziaren errepresioa jasan ere manifestazioaren amaieran. Lehenengo urte haietatik, Empar feminista aktiboa izan da eguneroko militantzian, eta generoaren berdintasuna eta, oso bereziki, sexu-askatasuna defendatu izan ditu. Kataluniako Koordinadora Feminista sortzen parte hartu zuen, eta Madrilgo Feminista Lesbianen Kolektiboaren fundatzaile izan zen; kolektibo horri esker, mugimendu osoak defendatuko du, eta ez lesbianen taldeek bakarrik, lesbianismoa heterosexualitatearekin berdintasunean. “Beste ahots feminista batzuk” korronteko kideetako bat da, eta bertatik, pisu handieneko feminismoaren ez diren beste ikuspegi desberdin batzuk ezagutarazi nahi izan ditu Estatuko politika publikoetan.

Empar Pineda borrokalari ausart eta tematia izan da osasun publikoak genero-gaietan izan dituen gabezia garrantzitsuenei arreta eskaini diezaiela aldarrikatzeko lanean, esate baterako generoa berrizendatzeko esku-hartzeetan.

Aurreiritzirik gabeko sexu-heziketa baten beharra defendatzen du, heterosexualitatearen esparrura mugatuta ez dagoen sexualitatearen ikuspegi bat proposatuko duena, eta hala, prebentzioa aldarrikatzen du indarkeria matxistaren aurkako borrokan, eta horretan, funtsezko elementuak dira bai heziketa-lana eta bai gizonak borroka honetara erakartzea ere.

Bere bizitzaren parte handi bat LGTB kolektiboa defendatzen aritu da, eta lesbianek duten oihartzunean jarri du arreta berezia, erronka indibidual eta kolektibo gisa hartuta.

Dibulgazio-lan horrek *Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Feminista* guztietan parte hartzera bultzatu du, eta izan ere, 1983z geroztik parte hartu du bertan.

Empar Pineda lesbiana izan zen lesbianarik ez zegoen garaian, emakume feminista izan zen hori jende isolatuaren gauza zenean, emakume aktibista izan zen bere kontzientziak eta arrazoimenak genero edo sexu-orientabideagatik diskriminatzearen aurka borrokan aritzera bultzatu zutenetik.

Horregatik guztiagatik, Gehitu 2012 Zilarrezko Sariaren irabazle izendatua izan da, eta sari hori, hain zuzen ere, berak lortutako Margarita Borrás Saria edo San Jordi Gurutzea bezalako sari ospetsuei gehituko zaie.



**berdintasunezko ezkontza
matrimonio igualitario**